

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Bezeroekin izango dugun harremana Internet bidezkoa eta aurrez aurrekoa izango da.

Automatizatua izango da, webgunea erabiliko dugulako bezeroekin komunikatzeko. Bertara hainbat mezu bidaltzeko aukera izango dute suertatzen zaizkien zalantzak argitzeko edota gure zerbitzua alokatzeko aukera, eraikin fisikora joan beharra izan gabe. Beraz, aurrez aurreko harremanaz gain online bidezko harremana izango dugula ere esan dezakegu.



Aurrez aurreko metodoa ere izango da, eraikinean bertan, sarreran, bertan bezeroekin aurrez aurreko harremana izateko aukera izango dugu.

Telefono zenbaki bat ere izango dugu edozein zalantza argitzeko edozein momentuan bezeroak gurekin komunikatu daitezzen. Hori bai, telefonoa ordutegi batean soilik izango da erabilgarri. Astelehenetik asteazkenera 11etatik 18tara eta ostegunetik igandera goizeko 10etatik gaueko 20:30etara.



Dendaren ordutegiari dagokionez, online denda, webgunea, momentu oro zabalik izango dugu eskaerak egin ditzaten bezeroek, baina denda fisikoko ordutegia mugatua izango dugu. Ostegunetik igandera egingo dugu lan, goizeko 10etatik gaueko 20:30ak bitarte. Jaiegunetan ere irekita egongo da, eta hala ez bada aldez aurretik abisatuko zaie bezeroei.

Ordutegi hauez gain, zerbitzu bereziak ere eskainiko ditugu, eskolek eta ikastolek adibidez malgutasuna

izango dute egutegi aldetik, hau da harremana izan da akordio batera heldu gintezke astelehen, astearte edota asteazkenean gure zerbitzuak erabiltzeko.